

Donostia 'n, Gipuzkoa 'ko Aldundi-Jauregian, 1924 'ko Garagarila'ren 26 'an.

Ona emen Batzaraldira datozen euskaltzañak. Azkue maipuru, Urkijo, Landeretxe, Eguskitza, Olabide, Intzagarai, Intza ta Lakonbe. Oitura danez otoitzez asi da batzara.

1. Aita Intza'k Napañoa'n egin bear diran euskaljai batzuen beñi Euskaltzaindiari eman dio. Aita onek lan abetan darabilkien adore-pizkortasuna Euskaltzaindiak ezin uka lezake ta onegatik txalorik bañen-goyenaren diña deritzaio.

2. Aita Intza'k berak iragartzen digu: Iruña'ko Seminarioan euskal-azterpen edera'k izan dirala ta bere aburuz, zorionik bikañena azaldu bear zaiela Eretore, Irakasle ta ikasle guziai. Euskaltzaindiak zorionaldi au ematea pozik erabaki du.

3. Berdin ere txalorik edereña bereganatu du Jesus Arantzadi jaunak bere euskal-ikastoletan, euskal-azterpen onak azaldu diralako. Arantzadi jaunari ere zorionak Euskaltzaindiagandik.

4. Azkue jaunaren *Morfologia* auera eramateko diru pitin bat bear litzake. Oretarako baduela dirudi Bilbo'ko *Cultura Vasca*'k. Diru auxe irixteko *Marko Gardoki* jaunarekin itz egin bear da ta onen adiskide dan Balparda jaunari zerbait adieraziko dio Euskaltzainburuak.

5. Bahr gure urgazle jaunak, Azkue jaunari idatzi dionez, datoñen udaran euskal-lanetan jardun nai

luke. Euskaltzainburuaren aburua ontzat arturik Gipuzkoa'ko *aditz-lana* egotzi zaio.

6. Azkue jaunak Odon Apraiz jaunari *presupuesto* bat eskatu dio, onek bear bezala Bidasoa aruzko *Erizkizundia* egin dezan. Apraiz jaunak ez du oraindik erantzun.

7. Eguskitza jaunak *euskal-izpiakereari* dago-kion lan eder bat irakurri du.

Ta beste gai batzuek bigaramonerako utzi-ta otoi-tzez bukatu da batzaraldia.

**Donostia 'n, Gipuzkoa 'ko Aldundi-Jauregian,
1924 'ko Garagarila 'ren 27 'an.**

Auruko batzaraldian aipatzen diran euskaltzain berak datoz, Azkue maipuru dutela.

1. Ortiz de San Pelayo jaunak, Amerika'tik bialtzen duen ezkutitza Irakurri da Euskaltzaindiari 100 peseta igoriaz ta ango euskaldun artean gure alde lan egingo duela agintzen du. Eskeñak bialtzen zaizkio.

2. Iruña'ko Gobernadore jaunak, Napañoa'ko euskal-jaietarako ematen duen baimen-idazkia irakurri da.

3. Bähr jaunaren ezkutitz bat Euskaltzainburuak irakurri du.

4. Euskaltzain artean asko ta luze itz egin da : *ekañi du, dute... u oni dagokion aditz laguntzaillea ukan ala edu ala eduki ala zein beste otedan. Ez da ezer erabaki.*